

FAMILIA BELIER



**“EL MUNDO, NUESTRA FAMILIA.
ETXEAN BEZALA MAKALENAK LEHENAK”**

“El mundo, nuestra familia. Etxean bezala makalenak lehenak” goiburua aukeratu da aurtengo ekitaldirako. Honen bitartez, zera gogoratu nahi da: gure mundu honek desberdintasuna, atsekabea, sufrimendua... eragiten dituela eta, askotan, familia dela euskarria, laguntzailea, zailtasunez jantzitako egoera hauetan. Goiburuak etxekotasuna hedatzeko diosku, mundu zuzen eta anaikoarragoa eraikitzeko, giza familia handia eratzeko eta familia handi bezala bizitzeko. Era berean, familiari senidetasun eta elkartasunaren, gizarte konpromisoaren eskola bezala dagokion balioa aitortzeko ere eskatzen du.

IKUSIZ IKASI
X SEMANA DE CINE ESPIRITUAL

EL MUNDO, NUESTRA FAMILIA
ETXEAN BEZALA MAKALENAK LEHENAK

2017.KO MARTXOAREN 25TIK ETA 31ERA • DEL 25 AL 31 DE MARZO DEL 2017

Sesión abierta	25 marzo	Sesión escolar	27 al 30 marzo	Sesión escolar y Gesto Diocesano	31 marzo
	La familia Belier		Little boy Aviones de papel (E) La familia Belier		Little boy Ghadi La familia Belier

ANTOLATZAILA • ORGANIZA:

Bilboko Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

[HTTP://IKUSIZIKASI.BIZKELIZA.ORG](http://ikusizikasi.bizkeliiza.org)

FAMILIABELIÉR

Pelikula: **Belier familia**
Zuzendaria: **Eric Lartigau**
Herrialdea: **Frantzia**
Urtea: **2014**
Iraupena: **105 min.**
Generoa: **Komedia. Drama**
Gidoia: **Victoria Bedos, Thomas Bidegain, Eric Lartigau**
Musika: **Evgueni Galperine, Sacha Galperine.**
Aktoreen zerrenda: **Loane Emera, Karin Viard, François Damiens, Luca Gelberg, Roxane Duran, Eric Elmosnino, Ilian Bergala, Clémence Lassalas, Bruno Gomila, Mar Sodupe**

LABURPENA:

Belier familiako kide guztiak, 16 urteko Paula izan ezik, gorrak dira. Berak interprete lanak egiten ditu gurasoentzat, batez ere familiak duen baserriko gorabeherei dagokienez. Institutuko mutil bat gustuko izanik eta honek koruan izena ematen duenez, berak gauza bera egiten du. Han jabetuko da kanturako duen talentuaz (FILMAFFINITY)

BALORAZIOA: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako ikasleentzat.

Pelikulan barneratuz

Beiler familia bereiz da eta denak dira gorak 16 urteko Paula izan ezik. Paula ezinbestekoa da gurasoentzat eguneroko bizitzan, batik bat familiaren baserriko ustiapenean. Abesteko dohain harrigarria antzeman dion musika-irakasleak susperturik, neskak irrati-lehiaketarako proba prestatzea erabakitzen du. Hil edo biziko hautua da, familiarengandik aldentzea ekar dakiokelako eta, aldi berean, nahitaezko urratsa biziari heldurantz. Bizirik iraun ahal izango dute Beilertarrek betidanik beraien ezpain, belarri... izan den neskarik gabe ala elkaturik jarraitzeko edozer egiteko prest dagoen familiaren sena aterako ote da garaile?

Hauek dira pelikulan agertzen diren gaiak:

- Baldintzarik gabeko maitasun eta laguntasunarekin zailtasunak gainditzen dituen familia:
 - Entzumenezko desgaitasunari aurre eginez.
 - Elkartearen onerako politikan konprometitzeko erronka bere gain hartuz
 - Alabaren aukerak onartuz, nahiz eta sakrifizioa ekarri gurasoei. Alabaren kasuan, ez du familia bertan behera uzten. Oreka berria bilatzen dute.
- Iraunkortasuna talentu garatzeko, erronkari aurre egiteko...

1. Nolakoa da pertsonaia bakoitza

Atal honetan, pelikulan agertzen diren pertsonaiek dituzten balioak landu eta nabarmendu nahi ditugu. Norekin gatozen bat eta norekin ez aztertuko dugu, arrazoiak emanez.

Pelikulan sakontzeko, Jesusek zituen jarrera eta balioak gogora ditzakegu eta pertsonaia bakoitzak nola bereganatzen dituen ikusi.

** Nabarmendu pelikulako pertsonaia bakoitzak dituen balioak: Paula, Aita, Ama, Mathilde, Gabriel eta Thomasson Jn.a.*

** Batez ere, norekin nator bat? Zergatik?*

** Norekin ez hainbeste? Zergatik?*

2. Hitza-ideia-esaldia

Pelikula esaldi batean, ideia batean laburtzean datza. Ikasle guztien artean, pelikulan agertzen diren gai ugariak gogora ditzakegu eta, denon artean, garrantzitsuenak nabarmendu.

** Pelikula ikusi ondoren, hausnartu eta idatzi*

- Deigarri gertatu zaizun hitza
- Ideia esanguratsua
- Pelikula ulertzen lagundu dizun esaldia

** Pelikulan, hainbat gai lantzen da. Talde txikian, batera jarri bakoitzaren ekarpenak.*

** Gehien errepikatu diren ideiak eta zuretzat garrantzitsuenak direnak kontuan hartuta, idatzi pelikularen laburpena*

3. Familia, desgaitasuna...

- **FAMILIA** --- Belier familiaren istorioak bikain islatzen du zein garrantzitsua den familia eta elkar babestea eta laguntzea.

Jarduera honen bitartez haxe nahi dugu: ikasleek pentsa eta hausnar dezatela pelikulan agertu diren eta beharbada beraien familietan gertatu izan diren egoera jakin batzuen inguruan, hain zuzen ere, "maitasuna" harremanen suspertzaile izan den egoeren inguruan.

Familiak, egoera onetan zein ez hain onetan, zer nolako balioa duten jabeaz nahi ditugu. Eta balio hori beraien eguneroko bizitzara eraman eta lan dezatela.

- **DESGAITASUNA** --- Belier familiak naturaltasunez hartzen du bere desgaitasuna, honek dakartzan mugak handiak badira ere. Desgaitasuna, arreta osoa praktikatzeko aukera izan daiteke.

Hona hemen proposamena: neska-mutikoek hainbat gauza antzeman dezatela zentzumenen bidez eta, ondoren, nola sentitu diren adieraz dezatela.

Proposamena, irakasleak gidari lanetan jardun dezan:

- Desgaitasuna, arreta osoa praktikatzeko aukera izan daiteke. Ikus dezagun.
- Zirkuluan, lasaitasunez, presarik gabe, dasta dezatela astiro-astiro ogi-puska bat. Ogia banatu eta ez diogu jarduerari ekingo denek eduki arte.

Zentzumen guztietan jarriko dugu arreta:

IKUSMENA: Bere kolorea, itxura, tamaina... behatuko ditugu

UKIMENA: leuna, latza, zimurtsua...

USAIMENA: zeren usaina du, zer gogorarazten digu...

ENTZUMENA: belarrira hurbildu, bitan zatitu eta entzun dezatela ateratzen duen hotsa

DASTAMENA: azkenik, zati bat ahoan sartu eta astiro-astiro dastatu

Elkarrizketan jarduteko:

- Zentzumen guztiek duten garrantzia. Batzuetan, ez ditugu egokitasunez baloratzen.
- Beiler familia eta Paulak familiaren euskarri bezala duen egitekoa ulertzen, beraien sentimenduekin bat egiten saiatuko gara.
- Doakotasuna

** Ikus dezagun! Banan-banan, zentzumen guztietan arreta jarriko dugu: ikusmenean, entzumenean, ukimenean, dastamenean eta usaimenean. Zer sentitu dugu? Zergatik?*

4. Pelikula errepasatuz

Pelikulan sakonduko dogu eta, horretarako, pasarterik esanguratsuenak errepasatuko ditugu.

- **Eszena 15.13min – 16.18min**

Familia honentzat, desgaitasuna ez da arazoa, ametsak, erronkak betetzeko aukera baizik. Balio oso garrantzitsua da.

** Osatu esaldia: "familia..." (zeure esperientzia eta beraien egoera kontuan hartuta)*

** Familian iritzi berak ez badituzue, zer egiten duzue? Kide guztiok hitz egiten duzue horri buruz ala bakartu egiten zara?*

- **Eszena 1.01.00min – 1.02.15min**

* *Nori azaltzen dizkiot niretzat garrantzitsuak diren gauza horiek?*

* *Nortzuk dira babes-laguntzak zerbait egin gura dudanean?*

* *Hori islatzen duen familiako gertaera edo egoeraren bat aipatu.*

- **Eszena 1.07.53min – 1.09.57min**

* *Sentitu duzu noizbait zure familiako norbaiti huts egin diozula? Nola sentitu zara?*

* *Zein babes izan duzu eta zer egin duzu egoerari buelta emateko?*

* *Zure familia, nola kokatu da?*

* *Bere bizimodua Aurrera eramatea erabakitzen duen baina, aldi berean, familian bizi den maitasunari eusten dion pertsonaren emozioak biltzen dituen azken abestia entzun berriz ere. Nola sentitu zara? <https://www.youtube.com/watch?v=9keP-TJ9Rrk>*

5. Begirada sinesteduna

Begirada sinestedunaren bidez, Jainkoak emandako dohainak gutariko bakoitzarengan antzemango ditugu eta balio horien nola garatzen ditugun ikusiko.

Erm 12, 4-6 Bibliako txatalaren ikuspuntutik irakurriko ditugu pelikulari buruz landutakoa eta hortik ateratako ondorioak.

* *Zein dohain antzematen dut neure buruarengan, neure familian?*

* *Jainkoaren Hitzaren arabera, denok gara garrantzitsuak, nahiz eta gaitasun, dohain... desberdinak izan. Nola laguntzen dut, nire familiakoek, nire adiskideek beraien gaitasun eta dohainak gara ditzaten?*

* *Zer egiten dut nire inguruko desberdinek beraien dohain eta gaitasunak gara ditzaten?*

* *“Zuok, guztiok duzue kutxatxo bat eta barruan altxorra dago. Atera altxorra, hazten lagundu eta besteei eman. Gurariko bakoitzak altxorra du barruan. Altxorra erdibanatzen badugu... biderkatu egiten da besteengandik datorrenarekin... Ez ezkutatu altxorra. Zuok egiten duzuenak denoi laguntzen digu, bizia altxorra dela eta emanda bakarrik dela zentzukoa ulertzeko... Ez dugu zailtasunen aurrean beldurtu behar. Denbora, argitasuna eta ausardia baizik ez ditugu behar”. (Frantzisko Aita Santuaren topaketa desgaitasuna duten haurrekin. 2015eko otsaila)*

* *Bat zatoz Aita Santuaren hitzekin? Esan zergatik.*